



2007-2008ko UNIBERTSITATERA SARTZEKO INGELES HAUTAPROBA HAUTAPROBETAKO INGELES ZUZENTZAILEENTZAT ESKURAGARRI

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Epaimahaietan beti egoten dira bina zuzentzaile. Zalantzarik izanez gero, elkarri galde egin diezaioke, horrela biak ala biak ebaluazio-irizpide berberak aplikatu ditzaten. Kalifikazio osoa **0** eta **10** bitartekoa da. Ariketaren batek mereziko balu, dezimalak ere jarriko dira, beti ere zehaztasun handiagoa lortzeko asmoarekin. Ariketa bakoitzaren alboan puntuazioa adierazi behar da, eta baita ere puntuazio orokorra izenburupean (**0/0,25/0,5/0,75/1**).

I.- Answer questions 1-4 according to the information given in the text. **Use your own words** (4 marks)

Atal honetan **irakurketa ulermenerako** eta **idazketa adierazpenerako** ikasleen trebetasun maila neurtu nahi da, gai arrunteko testu bat aztertu eta era orokorreko (*wh-question*) galderei erantzun eta gero. Erantzunak, adierazpenari dagokienean, sormenezkoak izango dira, osoak, zuzenki eratuak eta lotura sintaktikoak egokiz eginak. Edukiari dagokienean, beti ere testuan ongi oinarrituak izango dira, era zuzenean edota era inferituan adierazita. Ulermen eza **0** batekin puntuatuko da eta testu originalaren parafraasia edo kopia hutsa **0,25-0,5** gutxituko da. Ulermena %50raino balioetsi daiteke, eta adierazpena beste %50.

II.- Are these statements **True** or **False**? **Justify** your answers based on information from the text, rewriting the original sentences in your own way or, at least, quoting properly. (2 marks)

TRUE edo FALSE delako erantzuna behar den justifikazioaz lagundirik jarri beharko da. Ikasleak, testuan oinarria harturik, erantzuna bere hitzekin justifika dezake baieztapena testutik jasota edo baita ere testuko esaldia era egokian aipatuz. Erantzun esaldiak osoak izan beharko dute, edota kasuan kasu, behar bezala elkarlotuak kaxotx artean aipaturikoa zuzenki txertatzeko. Ez du baliorik izango TRUE edo FALSE hutsa idazteak.

III.- Find the words or expressions in the text that mean (1 mark)

Ariketa honetan ikasleak ingeles lexiko edo terminologia noraino dakien neurtu nahi da. Lau sinonimo, definizio edo esaldi eskaintzen dira eta ikasleak horietako bakoitzak testuan esangura hori duen hitza aurkitu behar du. Aditza bada, testuan ageri den aldi berean jokaturik jarri beharko da. Hitz bakoitzak 0,25ko kalifikazioa dauka eta guztiek puntu bat osatzen dute.

IV.- Write a **composition** of about 130 words on **ONE** of these topics. Specify your option. (3 marks)

Atal honetan idatzizko **ahalmen komunikatiboa** neurtu nahi da, une berean ikasleak bere ideiak nola egituratu eta horiek ingelesez adierazteko zein baliabideak erabiltzen dituen ebaluatuz baita. Gaiarekiko bi aukera eskaintzen dira, lehena ikuspegi zabal eta orokorrekoa, eta bigarrena ikuspegi zabal eta pertsonalagoa nonbait. Edukiak aukeratutako gaiarekin lotura zuzena izan behar du, beti ere testuko esaldiak kopiatzeri uko eginez. Idazmenari dagokienean, ikasleak askatasun osoa du idazteko eraz (idazmen narratzailea, deskriptiboa, argudiozkoa...). Kalifikatzeko orduan, objektibotasuna eta eskuzabaltasuna izango dira irizpide nagusiak. Idazlanak zerbait baliagarria badu, jar bekio puntuazioan 0,25 gutxienez, eta ez 0 hutsa. Jarraibide gisa balioesteko orduan, ondokoak eduki daitezke kontuan: gramatikazko egitura eta sintaxia (1 mark); zuzentasun eta aberastasun lexikoa (1 mark); eta aspektu testualak eta komunikatiboak (1 mark).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 14an
Izpta.: José Miguel Santamaría (945.01.34.44)
Koldo Salterain (944.03.19.70)
USH Ingeles Koordinatzaileak